



**OSAKIDETZAKO XXXXXXXX-(E)K EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: “EA POSIBLE DEN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN LARRIALDI ZERBITZUEN ANTOLAKETAKO ZENBAIT DATU EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILEKO SOS-DEIAK LARRIALDIETAKO KOORDINAZIO-ZENTROEI LAGATZEA, ZERBITZU BIEK PARTE HARTU DUTEN INTZIDENTZIETAKOAK DIRELA KONTUAN HARTUTA”**

## **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** 2009ko urtarrilaren 28an Osakidetzako XXXXX-(r)en idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

**BIGARRENA:** Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

*“Larrialdiak Kudeatzeko Osakidetzaren Zentroa eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko SOS-Deiak Larrialdietako Koordinazio Zentroa toki berean daude eta operazio-gela bera partekatzen dute.*

*Erakunde biek plataforma informatiko bera erabiltzen dute. Plataforma informatikoak hainbat konpartimendu ditu eta beharrezkoa bada, informazioa partekatzeko aukera ematen du.*

*Bi erakunde hauen eginkizunak bi multzo nagusitan bereiz daitezke:*

**1.-** Agentzia bakarrekoak: eginkizunaren erantzukizuna zerbitzu bakar batek duenean (osasuna, polizia, suhiltzaileak eta abar); adibidez: etxe batetik deitzen dute haur batek sukarra duelako (osasunaren esparruko eskumena eta erantzukizuna da, ez beste inorena).

**2.-** Agentzia askoren artekoak: eginkizunaren erantzukizuna hainbat zerbitzuek dutenean. Adibidez: trafiko istripu bat (eskumena eta erantzukizuna batzuen artean partekatuta: Ertzaintzak: segurtasuna; suhiltzaileek: erreskateak; Osakidetzak: osasuna eta abar).

*SOS-Deiak Larrialdietako Zentroak zenbait datu eskatu dizkio Osakidetzari. Datuak agentzia askoren arteko ekintzei buruzkoak dira eta Osakidetzak parte hartu du bere baliabideekin.*

*SOS-Deiak Larrialdietako Zentroak izan ohi ditu gertakariari buruzko zenbait datu:*



*irekiera datuak, kudeaketari buruzko eta eboluzioari buruzkoak eta gertakari bakoitzaren bukaerari buruzkoak. Datu horiek parte hartu duten zerbitzuek ematen dituzte (suhiltzaileek, poliziak edo / eta osasunak).*

*Aurrekoez gain, SOS-Deiak Larrialdietarako Zentroak ohiko larrialdi egoerei buruzko datuak ere eskatzen ditu, ez hondamendi egoeretakoak edo biktima askoko gertakariei buruzkoak (biktima askoko gertakariak badira, kaltetuen, zaurituen, lekualdatzeen eta abarren zerrendak egiteko obligazioa dugu).*

*Zehatzago esanda, SOS-Deiak Larrialdietarako Zentroari interesatzen zaizkion datuak ebakutatutako pertsonen buruzkoak dira eta Osakidetzako Larrialdiek eta SOS-Deiak Larrialdietarako Zentroak elkarren artean egindako jardueren buruzkoak dira (agentzia askoren arteko intzidentek). Hona hemen eskatzen dituen datuak:*

*Izen-abizenak*

*Sexua*

*Adina*

*Intzidenteen erreferentzia zk.:*

*Data*

*Ordua*

*Intzidenteen tokia*

*Larritasunaren balorazioa (Ez da diagnostikoa, kolore kode batek balio du)*

*Ebakuzioaren lekua.*

*Datu eske hau egiten da beharrezkoa ikusten delako larrialdietako deien —Europa osorako den 112 telefono zenbaki bakarraren bidez egiten dira deiak— arretarako zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko eta larrialdien koordinaziorako berezko eginkizunez baliatzeko. Hona eginkizun horietako batzuk:*

*Larrialdien jarraipena eta kontrola egitea, bai eta horien ondorioena, bukaerena eta emaitzen ere.*

*112an sartutako deiekin lotutako larrialdietako jardueren analisia.*

*Zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioak, auditorien eta erabiltzaileen asebetetzeari buruzko inkestak bidez.*

*Ukituak identifikatzea eta komunikazio protokoloak aplikatzea.*

*Kexa eta erreklamazioen kudeaketa.*

*Trazabilitate-bermeak zerbitzua abian jartzen denetik prozesua bulkatzen denera arte (eskaera partikularrak bideratzea, ziurtapen judizialak, datuen atzipenak eta datu zuzenketak, eta abar)."*

**HIRUGARRENA:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen*



*tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Kontsultaren planteamenduan egindako deskribapena ikusita, Bulegoaren iritziz, gutxienez badaude bi gai aztertu beharrekoak, kontsulta-idazkiko auziari erantzun arrazoitua eman aurretik.

Bata kontsulta-egileak ematen duen zerbitzuari dagokion lege-araubidearekin lotuta dago, zerbitzu horretatik eskuratzen direlako datuak; eta bestea datu eskearen helburuekin du zerikusia, hau da, SOS-Deiak Zentroak zertarako eskatzen dituen datuak. Izan ere, puntu biak dira kontuan hartu beharrekoak eta azalpen argigarri gisa besterik ez bada ere, ezinbestean aipatu behar ditugu.

Lehenengo gaiaren gaineko argibideak emateko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua ekarri behar dugu hona. Dekretu horren arabera, Larrialdiak (Larrialdietako Lurralde Unitateak) ente publikoaren zerbitzu-erakunde gisa eratzen da eta 255/1997 Dekretuaren 13. artikulua eta hurrengoek ezartzen dituzten eskumenak, araubide organikoa eta funtzionala dute, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 23. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bestalde, Euskal Autonomi Elkarteko Premiabidezko Sorospen-Zerbitzuak birregitratzen dituen Osasun sailburuaren 1994ko martxoaren 29ko Aginduak xedatzen du, Zentrotik kanpo, hau da, Osasun Barruti bakoitzean garatuko direla egitekoak eta honako zerbitzu hauek (guretzat interesekoak aipatuko ditugu) izango dituzten Premiabidezko Unitateak sortuko direla barrutietan: Zentro Koordinatzaileak eta Premiabidezko Ekipoak.

Aginduaren 5. artikulua arabera, hona hemen Zentro Koordinatzailearen eginkizunetako batzuk, ustez galdera argitzeko baliagarrienak:

*“Sistemara telefonoz egiten diren osasun eskabide guztien kudeaketa dagokio Zentro Koordinatzaileari eta honako egiteko hauek beteko ditu:*

*c) Bidezkoak diren sorospen-errekurtsoak higitu eta koordinatu, hara nola:*

- *Premietarako ekipoak.*
- *Premiabidezko Osasun-Garraiorako Sarea (POGS).*
- *Etzetatiko Abisuak, bai sendagile mailakoak, bai enfermeritza mailakoak.”*

Aginduaren 6. artikulua honakoa xedatzen du:

*“Premiabidezko Ekipoen egitekoak, honako hauek dira: Bat bateko eta espezializatutako osasun sorospena «in situ» eskaintzea bizitza arriskuan dagoeneko*



*larrialdi-egoeretan, behar den bezalako langilez eta medioez hornitutako garraioa egitea eta bai Zentro Koordinatzaileak izenda dakizkiokeen beste egiteko zehatz batzuk ere..*

Kontsultaren planteamendua kontuan hartuta, zerbitzu horiek guztiak agentzia bakarrekoak nahiz agentzia askoren artekoak izan daitezke. Hori dena argi geratzen da kontsulta idazkian eta bertan emandako adibideetan.

Lehengo kasuan biltzen diren datu pertsonalak direla-eta — *“telefonoz egiten diren osasun eskabideak”* (Aginduko hitz berberak erabilia) izan arren, eta 112 telefono zenbakia ala koordinazio zentro bakoitzak esleituta dauzkan telefono zenbakiak erabili—, esan behar dugu ez dutela garrantzirik irizpen honen ondorioetarako.

Batez ere, bigarren kasuan biltzen diren datuak interesatzen zaizkigu, hau da, agentzia askok parte hartzen dutenean. Kasu horretan pentsatzekoa da deirik gehienak 112 telefono zenbakian jasoko direla batez ere.

Aurreko paragrafoan esandakoak aukera ematen digu larrialdiak artatzeko araudiari heltzeko, “babes zibilaren” ikuspegitik abiatuta. Hona hemen araudia: Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea; Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duen eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituen ekainaren 24ko 153/1997 Dekretua eta Koordinazio Operatiborako Zentroak sortzeari buruzko martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua.

Aurreko paragrafoan aipatutako araudiak ezartzen duen lege-erregimena zehatz aztertu beharrik ez dago, baina bertan aipatutako legearen III. kapituluak xedatutakoa aipatuko dugu. Kapitulu hori lazeriak ez diren larrialdiei buruzkoa da eta bertan honakoa esaten da: *“Larrialdiak koordinatzeko guneak Herrizaingo Saileko administrazio-zerbitzuak dira. Horien helburua laguntza-eske egiten diren deiak jasotzea eta dei horiek dagozkien zerbitzuekin kudeatzea da, eta baita beharrezkoak diren zerbitzuak koordinatzen eta bateratzen teknikoki laguntzea ere”*. Era berean dio honako eginkizunak dituztela: *“Euskal Autonomi Elkartearen eremuan laguntza eta sorospen eske egiten diren dei guztiak jasotzea”, “Premia edo ustekabeari antzematea eta deia edo alarma dagokien zerbitzuei edo agintariei pasatzea” eta Larrialdiaren garapenari jarraipena egitea, hala egokituz gero -horretarako, parte hartzaileek informazioa pasako diete-, eta parte hartzen duten eskuarte eta baliabideen koordinazioan laguntzea”*.

Bestalde, lege berak honakoa xedatzen du 25. artikuluan:

*“Larrialdiko egoeretan pertsona eta ondasunei buruzko aurreneurriekin, arretarekin, sorospenarekin eta segurtasunarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten jardueretan aritzen diren Euskal Herriko herri-administrazio guztiek eta erakunde publiko nahiz pribatuak lankidetzan aritu beharko dute larrialdiei arreta eskaintzeko eta koordinatzeko ardura duten Herrizaingo Saileko organoekin:*

*a) Premiazko egoera edo larrialdia non den, dauden langileak, eskuarte teknikoak, zerbitzua eskaintzeko sistemak eta, oro har, zein baliabide erabil daitezkeen jakinarazita, eta*

*b) ezagunak dituzten larrialdi-egoera horien garapen eta bilakaeraren eta amaieraren berri emanda”*.



Guretzat interesekoa da Larrialdiei aurregiteko bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duen eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituen ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak eratzen dituela ekintza-taktikak. Hona hemen ekintza-taktikei buruz dioena: Hondamendi ez diren gora-beheretako larrialdiei aurre egiteko sistemaren erantzun-tresnak dira ekintza-taktikak. Larrialdien Kudeaketari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen III. kapituluan jasota.

Azkenik, hona hemen Koordinazio Operatiborako Zentroak sortzeari buruzko martxoaren 8ko 34/1983 Dekretuak dioena eta zein eginkizun esleitzen dien:

- a) *Laguntza eske egiten diren deiak jasotzea, alarmaren berri ematea dagokien zerbitzuei eta zerbitzu horien ekintzak koordinatzea.*
- b) *Daude baliabideak eta mobilizatu daitezkeenak koordinatzea era guztietako esku hartzeetan, bai eta larraialdi-operazioetan ere.*
- c) *Intzidente bat gertatzen denean abian jartzen diren zerbitzuen esku hartzeak aztertzea eta planifikatzea, zerbitzuen logistika operatibo anitza bateragarri eginez.*
- d) *Zerbitzuek dituzten prebentzioaren esparruko jarduerak aztertzea eta planifikatzea, ez daitezen bikoiztu.*
- e) *Operazio batean parte hartu duten zerbitzuen aldetik informazioa jasotzea momentuan bertan, bai operazioaren bilakaerari buruzkoa, bai bukaerari nahiz emaitzei buruzkoa.*
- f) *Egin diren esku hartzei buruz helarazten dizkioten datuetatik abiatuta, analisi xehatuak eta estatistika egokiak egitea.*
- g) *Koordinazio operatiborako zentroen funtzionamenduari buruz duten informazio guztia bidaltzea, bertan dagoen dokumentazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako dena delako erakunde eskumendunei eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekin arlo horretako lankidetzak hitzarmenak dituzten erakundeei, halakorik eskatzen badiete.*
- h) *Inbertsio eta baliabideen plangintza egokia egiteko behar den dokumentazio eta informazio guztia egitea, eta bidaltzea itunpeko zerbitzuei, halakorik eskatzen dietenean.*
- i) *Itunpeko zerbitzuei homologatutako materiala erabiltzea gomendatzea.*
- j) *Egin beharko diren operazioetan euskarri gisa balia daitekeen dokumentazio teknikoaren gaineko azterlanak egitea.*
- k) *Koordinazio operatiboetarako zentroen helburuekin zerikusia duen beste edozein eginkizun, baldin eta lankidetzak hitzarmenetan jasota badago.*

## II

Gainetik bada ere, azalduta geratu da zein den Osakidetzako larrialdiak koordinatzeko zentroaren eta larrialdien arretaren lege-errejimena “babes zibilarren” ikuspuntutik. Beraz, orain aztertu behar da, labur antzean bada ere, SOS-Deiak Larrietarako Zentroaren eskabidearen oinarrian dauden helburuak, auzia planteatzen duen idazkia kontuan hartuta.

Eta helburu horiek aztertzea interesgarritzat jotzen dugu, helburuen deskribapena ikusi eta gero, iradoki nahiko genukeelako —helburu horiek lortzen laguntzeko asmoarekin, baina datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari ahalik eta kalterik txikiena egiteko asmoarekin ere bai— ea SOS-Deiak Zentroak eskatzen dituen pertsonen identifikazio datuak behar beharrezkoak ote diren lortu nahi diren helburuetarako. Hona hemen DBLOren 4. artikulua dioena: “*Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta*



*neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, espizitu eta legitimoekiko”.*

Hori azaldu dugu Bulegoak uste duelako —zuhurtzia osoz— lehenengo bi helburuen bitartez (hau da *“Larrialdien jarraipena eta kontrola egitea, bai eta horien ondorioena, bukaerena eta emaitzena ere”* eta *“112an sartutako deiekin lotutako larrialdietako jardueren analisia”*) larrialdiaren garapenari eta emaitzari buruzko informazio orokorra eskuratu nahi dela, besteak beste, zerbitzua hobetzeko. Hori hala bada, ez dago zertan jakin zein pertsonak jaso duen zerbitzua zehatz-mehatz. Agian berdin-berdin lortuko litzakete emaitza bera, hau da, zerbitzua hobetzea, datu disoziatuekin. DBLOren 11.6 artikuluan dago azalduta zer den disoziazioa, eta hala jokatzuz gero, operazioak ez du izango eragozpenik datu babesaren ikuspuntutik.

Azken bi helburuei dagokienez, ordea (*“Kexa eta erreklamazioen kudeaketa”* eta *“Trazabilitate-bermeak zerbitzua abian jartzen denetik prozesua bulkatzen denera arte (eskaera partikularrak bideratzea, ziurtapen judizialak, datuen atzipenak eta datu zuzenketak, eta abar)”*), ematen du interesdunak edo organo judizial batek zerbait egin behar duela lehendabizi. Hori hala bada, alde batetik, ematen du ez dela beharrezkoa, une horretara arte behintzat, eskatutako datuak izatea; eta, beste aldetik, herritarrak esku hartzen badu, baldin eta behar den bezala eskatzen bazaio esku hartzeko, herritarraren esku hartzeak berak bihurtuko ditu legezko kexa, erreklamazioa, eskaera, atzipena, zuzenketa eta abar egiteko behar diren datu lagatzeak.

Beste bi helburuen gainean (*“Zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioak, auditorien eta erabiltzaileen asebetetzeari buruzko inkesten bidez”* eta *“Ukituak identifikatzea eta komunikazio protokoloak aplikatzea”*) esan behar dugu —berriro ere zuhurtzia handiz eta tartean dauden erakundeen erabakiekiko errespetu osoz— Larrialdien memorien argitalpenetan jasota agertzen dela zein den koordinazio zentroen jardura eta egon den intzidente kopurua, bai eta erantzun motak eta baliabideen mobilizazioak ere. Gainera, 2007ko memoriak berariazko atal berezi bat du Larrialdien erabiltzaileen *“bezeroen asebetetzea”* izenburuarekin.

Gainera, kontsulta-idazkiak dioenez, *“SOS-Deiak Larrialdietako Zentroak baditu gertakariei buruzko zenbait datu: irekiera datuak, kudeaketari buruzko eta eboluzioari buruzkoak eta gertakari bakoitzaren bukaerari buruzkoak. Datu horiek parte hartu duten zerbitzuek ematen dituzte (suhiltzaileak, polizia edo / eta osasunak)”*. Beraz, hori hala bada, pentsatzekoa da datu horiek funtsean nahikoa direla lortu nahi diren helburuetarako.

Azpimarratu behar dugu aurreko ohar guztiak egin baditugu, SOS-Deiak Larrialdietako Zentroak planteatutako aukeraren ordeztu, beste batzuk ere egon daitezkeela adierazteko izan dela. Gainera, beste horiek kalte gutxiago egiten diote hemen aztertzen ari garen oinarritzko eskubideari, eta behar bada baliokoak izan daitezke lortu nahi diren helburuak erdiesteko.

### III

Orain arte esandakoak alde batera utzi gabe, SOS-Deiak Larrialdietako Zentroak kontsulta-egileari egiteko eskatzen dion lagapena datu babesaren ikuspuntutik



kalifikatuko dugu segidan. .

Gauzak horrela, datu babesaren ikuspuntutik, esan behar dugu datu komunikazio edo datu-lagatze bat dugula esku artea, hau da, interesduna ez den beste bati datuak erakusteaz ari garela. Horri buruzko lege-erregimena DBLOren 11. eta 21. artikuluan dago.

Bigarrenik, hasiko gara; izan ere, aztertzen ari garen kasuan bai lagatzailea bai lagapen-hartzailea biak dira administrazio publikoak. Hona hemen artikulua horrek dioena:

*“Administrazio publikoek haien eskumenez baliatzeko bildutako edo landutako datu pertsonalak ezin izango zaizkie komunikatu beste administrazio publiko batzuei bestelako eskumenez edo gai desberdinei buruzko eskumenez baliatzeko bada. Salbuespen bat dago eta da komunikazioa helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako egitea..”*

Beraz, aztertu behar da ea eskatzen den datu-lagatzea bidezkoa den eta titularren adostasunik gabe egin daitekeen, artikuluan xedatutako kontuan hartuta.

Bulegoaren iritziz, kasu honetan ez da betetzen artikuluan aurreikusita dagoen baldintza datu-lagatzea bidezkoa izan dadin interesdunen adostasunik gabe.

Hau da, nahiz eta kontsulta egilearen idazkian esan *“biek batera parte hartzen duten intzidentziak direla”*, edo *“... hainbat zerbitzuren erantzukizun peko”* jarduerak direla edo balizko lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak eraikin eta aplikazio informatiko berberak erabiltzen dituztela, horrek ez du esan nahi biek eskumen bera baliatzen ari direnik.

Hain zuzen ere, Bulegoaren ustez, SOS-Deiak Larrietarako Zentroaren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoak “babes zibilaren” esparruan esleituta duen eskumenean gauzatzen da.

Koordinazio Operatiborako Zentroak sortzeari buruzko martxoaren 8ko 34/1983 Dekretuaren aurka aurkeztu zen eskumen gatazkaren gainean abenduaren 18ko Konstituzio Auzitegiaren 123/1984 Epaiaren arabera, koordinazio zentroek goian adierazitako eginkizunak dituzte. Hona hemen dioena:

*“... esparru hau Konstituzioaren 149.1.29 artikulua segurtasun publikoaren kontzeptuaren baitan kokatu behar da lehentasunezko izaerarekin, baina une honetan ez gara saiatuko argitzen zehatz-mehatz nola ulertu behar alderdi materialetik kontzeptu hori eta nahikoa dugu esatea segurtasun publikoa oro har pertsonak eta ondasunak eta herritarren ordena eta lasaitasuna mantentzeko eta babesteko jardura multzoa dela. Era berean, Konstituzioaren 148.1.22 artikulua xedatutakoa ere hartu behar da kontuan, horrek aitortzen baitie eskumena autonomia-erkidegoaren eraikinak eta instalazioak zaindu eta babesteko eta tokiko polizia dagokienez, koordinazio-lana eta bestelako ahalmenak burutzeko, lege organikoak ezarri duenaren arabera”.*

Beraz, esparru horrekin gertatzen dena da, eta doktrina konstituzionalak ere hala ikusten du, *“... bi eskumen daudela lehian*.

Gerora, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 9ko 168/2004 Epaiak, aurreko doktrina horretatik abiatuta, adierazi zuen *“...komenigarria dela zehaztasun batzuk ezartzea*



*esparru horretako eskumenen banaketa erregimenari buruz*". Hona hemen horri buruz dioena:

*Babes zibilaren helburua da, bere izatea horrelakoa delako, pertsonak eta ondasunak babestea larrialdi egoeretan. Horregatik, esparru honetan zenbait administrazio publikok bat egiten dute edo topo egiten dute (udalak, udalaz gaindikoak edo uhartetararak, probintziakoak, autonomikoak ala estatukoak) eta bakoitzak bere baliabideak eta zerbitzuak ipini behar ditu. Ikuspuntu horretatik abiatuta, babes zibilaren esparruko eskumena batakoa ala besteak izango du, larrialdi egoeraren izaeraren arabera eta mobilizatu behar diren baliabide eta zerbitzuen arabera. Horrek ekar dezakeen ondorioa da, estatutu bakoitzak ezarrita daukanaren arabera, erkidegoko administrazioak izatea esparru horren gaineko eskumena.*

Beraz, KAEk dioena aintzat hartuta, zera gertatzen da: "... subjektu askorenak diren hainbat zerbitzu eta baliabideren koordinazioa".

Beraz, hortik ondoriozta dezakegu gauza bat dela babes zibilaren esparruko eskumena, eta beste kontu bat dela (edo direla) mobilizatu beharreko baliabideak eta zerbitzuak abian dauden bitartean exekutatzen direnak (horien artean dago kontsulta egileak eskaintzen dituenak) eta berdin dio zenbat administrazio dauden tartean, bat, bi ala batzuk.

Irizpen honetako lehenengo gogoeta juridikoan jasotako arauen azterketa ikusi eta gero, ondorio berberera heltzen gara. Hau da, Herrizaingo Saileko larrialdien kudeaketarako zerbitzuak eta Osakidetzakoak guztiz bereizita daudela (nahiz eta bata bestearekin erlazionatuta egon), eskumenak ere desberdinak dituztelako eta nahiz eta baliabideak partekatu edo larrialdien berri 112 telefonoaren bitartez izan.

Bestalde, zerbitzu bakoitzak, bere eskumenak garatzeko behar dituen datu pertsonalak antolatzeke, berari dagokion datu pertsonalen erregistroa sortu duela esan beharra dago.

Hain zuzen ere, kontsulta-egileak "Urgentzia- eta Emergentzia-jarduera asistentzialen errolda" izeneko fitxategia sortu, argitaratu eta erregistratu zuen. Fitxategiaren helburuen artean eta bertan aurreikusitako erabileren artean dago urgentzietako eta emergentzietako zerbitzuetako baliabide higikorrek kudeatzea. Baina fitxategiaren lagapen-hartzaileen artean ez da agertzen SOS-Deiak.

Eta Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritza SOS-Deiak izeneko fitxategiaren arduraduna da. Fitxategiaren helburua da Larrialdietan Zuzendaritzak kudeatzen dituen jardueren gaineko kontrola izatea. Fitxategiak osasun datuak ere badauzka eta lagapen-hartzaileen artean agertzen dira larrialdia eragin duen ezbeharra konpontzeko eskumena duten herri administrazioetako zerbitzu operatiboak.

Hori guzti hori azaldu dugu adierazteko erakunde bakoitzak bere fitxategia duela eta bakoitzaren premien eta eskumenen arabera direla. Izan ere, erakunde bakoitzak bere fitxategia sortu eta antolatu du eta beste erakundearenarekiko guztiz autonomia da. Beraz, berretsi egin behar dugu fitxategi bakoitzak dauzkan datuak erakundearen dagokion eskumen batean dutela jatorria, nahiz eta zenbaitetan eskumenok bat egin dezaketen edo bat egin behar duten.



#### IV

Ikusirik eskatutako datu-komunikazioak ez duela DBLOren 21. artikulua babetik, bakar-bakarrik geratzen da ikustea ea komunikazioak DBLOren 11.2 a) artikuluan tokirik ote duen. Artikulu horren arabera, ez da behar interesdunaren adostasunik lagapena egiteko, *“Lege batek baimentzen badu lagapena”*.

Bulegoak uste du badagoela lege-babesa aurkitzerik larrialdiak kudeatzeko legediaren baitan.

Hain zuzen ere, Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak, gorago esan dugunez, hainbat obligazio esleitzen dizkie pertsona eta ondasunei buruzko arretarekin eta sorospenarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten jarduerak burutzen dituzten erakundeei, besteak beste, larrialdi egoeren informazioa ematea, bilakaerari buruz, ebaluazioari buruz nahiz bukaerari buruz. Martxoaren 8ko 34/1983 Dekretuak ere gauza bera xedatzen du.

Lehen aipatu dugun doktrina konstituzionalak ere informazio betebeharraren horren gaineko interpretazioa egin zuen.

Hona hemen doktrina horrek dioena:

*Nahiz eta informatzeko obligazioa izan, azpimarratu behar da ukitutako erakundeen edo enpresen obligazioa mugatua izan behar dela, **eta batez ere intzidentzia edo larrialdi kasuetan beharrezkoak diren datuekiko obligazioa izan behar dela**, eta informatzeko obligazioak ezin izango dio kalterik egin ukitutako erakunde edo enpresen egituraren edo funtzionamenduaren berariazko elementuei.*

Bulegoaren iritziz, eta kontuan hartzen badugu kontsulta planteatzeko idazkiak esaten duela komunikazioaren helburua dela *“larrialdietako deien —Europa osorako den 112 telefono zenbaki bakarraren bidez egiten dira deiak— arretarako zerbitzu publikokoaren helburuak betetzea eta larrialdien koordinaziorako berezko eginkizunez baliatzea”*, zilegi izan daiteke eskatutako datuak lagatzea, baldin eta helburu horretarako, eta horretarako bakarrik, eskatzen badira, baina ondoren esango duguna aintzat hartuta.

#### V

Edozelan ere, Bulegoak uste du aurreko ondorio hori gehiago zehaztu behar dela, batez ere eskatu diren datuen izaera ikusirik.

Izan ere, ondorio hori baliokoa da kontsulta-idazkian zerrendatuta dauden lehenengo zortzi datu motentzat (ez dira bereziki babestutako datuak). Baina konponbide horrek nekez balio du *“larritasunaren balorazioari”* eta *“Intzidentearen tokiari”* buruzko datuentzat.

Sos-Deiak Larrialdietarako Zentroak eskatutako bi datu horiek osasun datuak diren ala ez argitu beharra dago, eta horren arabera erabaki mota horretako datuek babes berezia behar duten ala ez, nahiz eta kontsulta-idazkiak berariaz esan *“larritasunaren balorazioa”* *“EZ dela diagnostikoa eta kolore kode batek balio duela”*.



“Osasun datuak” edo “osasunari buruzkoa datuak” edo, azken aldian DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren ondotik zabaldu den terminoa erabiliz, “osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak” zer diren dioen definizioa Dekretu horren 5.1 g) artikuluan dago. Hona definizioa: *“norbanakoaren osasun fisikoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa”*.

Ikusten denez, osasun datuei buruz eratu zen kontzeptua zabal samarra da. Eta hala da 1981eko urtarrilaren 28ko Europako Kontseiluaren 108 Hitzarmenaren Azalpen Txostenean jasotakoa, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak onartutako gomendioak eta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan hartuta eratu zelako.

Hitzarmenaren 45. gogoeta juridikoan osasun datuei buruzko honako definizioa ematen du: *“norbanakoaren osasun fisikoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa”*.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2003ko azaroaren 6ko Epaiak ere honakoa dio:

*“Komeni da 95/46/CE Zuzentarauaren 8. artikuluko 1. atalak erabiltzen duen osasun datuak kontzeptuaren gainean egiten den **interpretazioa zabala** izatea, eta pertsonen osasunaren alderdi fisikoaz gain, alderdi psikikoa ere biltzea bere baitan”*.

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak ere kontzeptuaren gaineko interpretazio zabala egin zuen estatu kideei egindako 1997ko otsailaren 13ko R(97)5 Gomendioan. Hona hemen: *“pertsonaren osasunari buruzko datu pertsonal **guztiez gain**, osasunarekin eta datu genetikoekin **zerikusi zuzena eta argia duten datuak ere** osasun datutzat joko dira”*.

Esandako guztia kontuan hartuta, SOS-Deiak Larrietako Zentroak eskatutako datuak osasunari buruzko datutzat jo behar diren ala ez argitzen saiatuko gara, nahiz eta diagnostikoari buruzko datuak ez izan.

Bulegoaren ustez, bai “larritasunaren balorazioa” bai “intzidentziaren tokia”, biak dira pertsonen osasunari buruzko datuak.

Oso argigarria da mediku historial klinikoetako osasunari buruzko datu pertsonalen tratamenduari buruz, Datuak Babesteari buruzko 29. artikuluko Lan Taldeak egin zuen Laneko Dokumentua. Hona han ezarritakoa:

*“Definizio hau (osasun datua zer den dioen definizioa) datu pertsonalei ere ezarri behar zaie, baldin eta datu horiek **zerikusi zuzena eta argia** badute pertsonen osasun egoeraren deskribapenekin... batik bat **mediku espedienteetan** jasota badaude. Beste datu batzuk ere datu sentisibletzat jo beharko dira, adibidez, dena delako pazientearen tratamenduari buruzko dokumentazio medikuaren baitako datu administratiboak (gizarte segurantzaren zenbakia, ospitaleratze-data, eta abar); batez ere, kontuan hartzen bada, pazientearen tratamenduaren testuinguruan ezinbestekoak ez balira, datu horiek ez zirela mediku espediente batean jasota egongo eta ez zirelako inondik inora han jaso beharko.*

Bukatzeko, zera dio:



***“dokumentu medikuetan, historial mediku elektronikoetan eta HME sistemetan dauden datu guztiak dira datu pertsonal sentsibleak. Beraz, Zuzentarauak dauzkan datu pertsonalak babesteari buruzko arau guztiak bete behar izateaz gain, Zuzentzarauko 8. artikuluan informazioa sentsiblearen tratamendua arautzeko jasotako datu-babesari buruzko arauak ere bete beharko dira. (Letra lodia guk jarri dugu).***

Bulegoak uste du, kontu hau osasun arloko araudiaren ikuspegitik aztertuta ere, ondorioa bera izango dela.

Hain zuzen ere, Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoen arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen Zioen Adierazpenak berariaz aitortzen du honakoa: “Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dio herritarren osasun datuak bereziki babestutako datuak direla, eta oso araubide zorrotza ezartzen du datu horiek eskuratzeko, babesteko eta balizko lagapenetarako.

Legearen 7.1 artikulua dio osasunari buruzko datuak konfidentzialak direla eta pertsona guztiek dutela konfidentziasunerako eskubidea eta inork ezin dituela datuak atzitu, legeren batek baimenduta ez bada. Lege bereko 18. artikuluan xedatutakoa ikusita, paziente bakoitzak baino ez du bere historia klinikoa atzitzeko eskubidea, eta ez beste inork (18.3 artikuluan finkatutako salbuespenekin). Hona salbuespenak: pazientearen ordezkariak, behar bezala kreditatuta, edo hildakoa bada, hildakoaren senitartekoek edo hildakoarekin loturaren bat dutenek (baldin eta hildakoak ez bazuen berariaz halakorik debekatu) edo hirugarrenen batek, baldin eta pazientearen osasuna arriskuan dagoelako, baina beti ere beharrezko datuak baino ezin izango dituzte atzitu.

Legeak “historia klinikoa” arautzen du, eta horretarako zenbait arau ezartzen ditu.

Hona hemen historial klinikoen definizioa, 3. artikuluen arabera: “*Paziente baten prozesu asistentzialaren baitan pazientearen egoera eta eboluzio klinikoari buruzko **edozein motatako** datuak, balorazioak eta informazioak biltzen dituen dokumentu multzoa*”.

Legearen 14. artikulua osatu egiten du definizioa. Hona hemen:

*“Historia klinikoa paziente bakoitzaren prozesu asistentzial guztiei buruzko dokumentu multzoa da eta prozesu horietako bakoitzean parte hartu duten medikuen eta gainontzeko profesionalen identifikazioak jasotzen dira bertan, paziente bakoitzaren dokumentazio kliniko guztia ahalik eta ondoen bateratzeko, gutxienez zentro berean”.*

Azkenik, jakinik “bestelako interes orokorrak” egon badaudela, hala xedatzen baitu Legeak Zioen Adierazpenean, Legearen 16. artikulua arautu egiten ditu “historial klinikoaren erabilerak”, eta horretarako, bi arau **bakarrik** ezartzen ditu artikuluen 3. eta 5. idazt-zatietan. Baliteke arau horiei esker hirugarren batek historial kliniko batean dauden datuak eskuratzeko legezkoa izatea; baina horrek ez du legezko egiten datu-komunikazioa.

Gainera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak ere antzeko iritzia eman zuen



duela gutxi ateratako 219/2008 Irizpenean. Hona hemen han esandakoa:

*“...kontsultatik ondoriozta daitekeenez, dokumentu horiek lagatzean, ez dira bakarrik izenen zerrendak hutsak ematen, lehen aipatutako langileei buruzko zenbait informazio ere jasotzen delako, esate baterako, zein istripu izan duten, istripuaren deskribapena eta **larritasuna**”.*

Bukatzeko, esaten du kasu horretan eskatu zituzten dokumentuak “... osasunari lotuta daudela”.

Nahiz eta kasu horretan kontsultaren esparrua beste bat izan (laneko osasuna), uste dugu ondorioa ezin dela bestelakoa izan.

Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, aztertzen ari garen kasuan atera dugun ondorioa da larritasunari buruzko eta ebakuazioari buruzko datuak lagatzea ez datorrela bat aztertutako araudiarekin, baldin eta ebakuazioa zentro medikua batera egiten bada.

## ONDORIOA

Eskatutako datu komunikazioa ez dago DBLOn xedatutakoaren aurka, larritasunari eta ebakuazio lekuari buruzkoena izan ezik.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 5ean